



kronika

Suitzako 5 egunetako ibileraren ondoren iparralderako bidea hartu genuen. Helmuga, Berlin. Eta holaxe egin genuen Biel eta Berlin bereizten dituzten 800 kilometro inguruak atzean laga ondoren.

Egun oso bat bidean eman genuen amaiezinak ziruditen Alemaniako autopistetako errepidetan. Ordu asko, atsedeen-guneak eta janari azkarrak albo batera utzita ailegatu ginen Alemaniako hiriburura. Hantxe, hirira sartu bezain pronto, topatu genuen ekialdeko Berlin zaharraren komunikazio dorre berritua ongiatorria adierazteko moduan.

Berlinetik harridura sortzen dizun estreneko kontua trafikoa da. Hasieran nahiko kaotikoa dirudi. Bidegurutze bitxi samarrak, biribilgune arraroak, norabidea aldatzeko bihurguneak nonahi...eta abar. Baina hala eta guztiz ere, harritzeko da, hasieran guretzako zen anabasa txiki horretan ez genituela ikusi ezta entzun ez klaxon-zaratarik, ez gidarien arteko haserrealdirik.... soilik kenduta gu okertzen ginenetan noski; GPS-a ere ez baita perfektua ;-)

Behin hirian egun batzuk igarota eta haien kale luzeetatik kilometro nahikotxo eginda konturatzen zara zeinen zabala den Berlin, zeinen handia den hiriak okupatzen duen lur-eremua. Idei bat egiteko, gu geunden Berlineko ekialdean zegoen campingetik erdigunera joateko 20 kilometro egin behar genituen. Horrela ulertzen da zergatik daukaten halako garraio publiko sare hain txukuna; tranbia, metroa, trena eta busen dozenaka linea daukate, Berlineko azken izkinara arte ailegatzeko direnak. Aipatzekoa da nola ez duten bitarteko handirik jartzen jende orok bileteta ordain dezan. Gure ustez garraioak benetan zerbitzu "publiko" moduan ulertzen dute eta bidaiak ordaintzea norberak garraio sare hori mantentzeko egiten duen ekarpena da. Honek trafikoan eta kutsaduran(zarata eta isurketak) eragin handia dauka eta gurean tamalez, esan beharrik ez dago, egun zeinen garesti dauden garraio mota guztiak, askotan kotxearen erabilera ezinbestekoa bilakatuz.

Zentzu honetan oso polita iruditu zitzaigun Berlineko bi ertzak lotzen dituen bizikletentzako bidea. Bizikleta sarri erabiltzen da zonalde hauetan bai eta hiri handietan ere. Lurralde lauak dira, aldapa bakoak eta oso ibilbide onak dituzte bizikletaz mugi ahal izateko.

Afera honekin bueltaka, baso batetik igarotzen zen ibilbide hauetariko batean genbiltzalarik ikusi genuen nola bidea egiterakoan errespetatu egin zuten ingurune guztia; arbola bat bera ere ez bota barik haien inguruan bihurguneak eginez. Segituan burura etorri zitzaigun gurean halakoren bat egingo balitz, "bi puntuen arteko distantziarik motzena"ren teknika erabiliko zutela. Hau da, zuzen egin, tarteko dena erauntsi eta zementua nonahi.

Egia esan, den bezain hiri handia izanda oso berdegune ederrak ditu Berlinek. Ederto zainduak eta oso zabalak; batzuk parkeak baino hari barneko baso txikiak dirudite eta.

Berlinen itxura hasieran oso berezia iruditu zitzaigun. Bitxia egiten da oso ez parte zaharra ez monumentu edo eraikin historiko nabarmenik ez dituen hiri bat. Berlineko historia berria baldintzatu duten bi guden eraginak bizi-bizirik darraie egun, eta hiriaren itxuran asko isladatzen da. Alde batetik 2. guda mundialaren suntsiketak ez zuen eraikin, monumentu, eliza edo parte zaharrik zutik utzi eta bestetik "guda hotza" delakoak sortutako Harresi ospetsuak bi zatitan eta bi sistemetan hiria banandu zuen.

Gaur egun harresia historiaren parte bat baino ez bada ere, bere eraginak nabarmen izaten jarraitzen dute. Itxurari dagokionez errez asko atzeman daiteke hiriaren zein partetan zauden eraikinei begira.

Oso berezia da nola komentatu zigutenen arabera eta gerora konprobatu genuenez, oraindik ere dena bikoiztuta daukatela. Hau da, bi udaletxe, bi epaitegi, 2 aireportu(orain 3 daukate), bi ospitale....

Ekialdean gaur egun zutik jarraitzen dute sozialismoak eraikin zituen langileentzako "etxebizitza sozialak" eta horiek dira, seguruen, bi parteak bereizteko erreferentziak. Altuak, txuriak gehienak eta inongo arkitektura erakustaldirik gabe. Zatarrak baina inguruneari kutsu komunista bat ematen diona.

Mendebaldean aldiz edonon topa ditzakezu bankuak, harribitxi-dendak(batzuk erakuslehoetan segurtasun-zaintzariak zituztelarik!), Mercedes nonahi bai eta limusina amaigabe horietako batzuk ere.... Diruaren presentzia nabarmena da edonon eta ekialdeko partean ez bezala ez da mugimendu kultural edo politiko askorik ikusten.



Berlineko ikurra den artza beltza



15 egun igaro genuen campingaren sarrerako panela



Manel joan aurretik bostok ateratako argazkia



Mendebaldeko Berlineko monumentu baten alboko tanke errusiar baten gainean

Askoz giro estandar, aurrefabrikatua eta arranditsua topatu genuen zonalde hartan, beraz esan gabe doa Ekogaiakideak zein norantza hartu genuen... RDA zaharreko eremua.

Esan bezala ekialdeko zonaldean askoz mugimendu kultural eta politiko handiagoak ikusten ziren. Etxe okupatu batzuk ikusi ahal izan genituen eta horrela gertutik ezagutu ere nola gaztetxe moduko hauetariko batzuk "publikoak" izatera igaro diren udaletxearen laguntzaz. Gaur egun kultur-etxeak bezala ulertu genitzake. Latinoamerikako zenbait herriarekiko elkartasun taldeen kaleko presentzia ere nabaria zen, Chile, Chiapas....

Etorकिनен kopurua ere oso altua zen zonalde honetan, ezbairik gabe turkiarrak talderik nagusia zelarrik. Brometan Berlineko Marirekin batera gure harremanetarikoa bat izan den Silviok komentatzen zigen nola Berlinek berez ez duen janari propio tipikorik eta hortik hurbilen egon litekeena "kebab"-a zitekeela. Arrazoirik ez zaio falta, kebab-saltokiak tabernak bezain ugariak dira eta.

Oso bizia dugu ekialdeko parte. Goizean lantoki eta gauean parrandazaleen gotorlekua, hantxe baitaude taberna-gunerik mugituenak.

Jendearen buruetan, gure ustean, oraindik ere ekialde eta mendebalde ezberdintasuna, horrek dakarren guztiarekin noski, bizirik jarraitzen du. Zenbaitzuk komentatzen ziguten nola bizi izan zuten Harresiaren erorketa eta nostalgia kutxu bat somatu geniola esan liteke. Oso adierazgarri da Silviok kontatu zigen bere bizipena. Bera musikazale porrokatua izanda RDA zaharrean disko berriak eskuratzea zaila suertatzen zitzailela eta Harresiaren suntsiketaren geroztik herrialde kapitalisten merkatua RDA-ra zabaltzean edozer erosteko aukera izan zuen. Pentsa! egun horretan mendebaldeko partera pasatu zirenei egin zieten lehendabiziko gauza mendebaldeko dirua oparitzea izan zen eta.

Beraz, hasieran berarentzat askapen "material" txiki baten moduan izan zen. Halaber, denborak aurrera egin ahala, aldaketarekin pozik agertu ziren gehienak konturatu egin ziren zetorkiona ez zela arrosa kolorekoa eta RDAn zeukaten jendearekiko gertutasuna eta harreman hurbila galtzen zela. Giza-komunitate bat izatetik erosle-komunitate batera pasatu zirela sentitu zuen.

Orokorrean esan daiteke ekialdean RDA zaharraren presentzia gaur egun nabaria dela, bai grafikoki kalean, tabernetan, etxeetan eta abar bai eta jenderen memorian ere.

Azken finean, laburbiltze aldera, bi sistema kontrajarririk urteetan landutako kontraste handia topatu genuen Berlinean.

Alemaniarren izaerari dagokionez gure iritzian nagusi izan da hotza hitza. Hasieran oso hotzak, itxi samarrak dirudite jendearekin tratuan hasteko momentuan. Bestalde esan beharra dago gurekin harremana izan duen jendea primeran jokatu dela. Batez ere gure kontaktuak izan diren Silviok eta Marik asko lagundu gaituzte. Zin dagizuet bueltatzen garenerako ez duzuela itzultzaile lanik egin beharko :) Mila esker bioi!!

Berlineko egonaldia eder askoa izan bada ere hainbeste herrialde bisitatu behar honek laster bideratzen dizu gogoa hurrengo geldialdiari begira.... oraingo honetan: Danimarka.

RDA zaharraren plaka bat



Mendebaldeko Berlineko hamburgereria baten ikurra



Silvio gure logo eusten Brandenburgoko atearen aitzinean



Biodiesela adierazteko etiketa bat

ekogaia proiektua

Suitzan egin genuen antzera, Berlinean ere gure proiektuaren inguruko lana bi arlo berdinetan banatu genuen. Alde batetik, Suitzan bukatu ez genuen azpiegitura lana behin betiko burutzea eta bestaldetik aurrikusita genituen lekuak bisitatzeko (bai eta Berlinean bertan azaldu zitzaizkigunak).

Azpiegiturari dagokionez, karabanaren sistema energetikoa instalatzen bukatu dugu. Horretarako eguzki-plaka bat erosi eta martxan jarri dugu, berarekin energia elektrikoaren beharra murrizteko. Egia esan, honen inguruko gure usteak bete egin dira; eguzki plaken munduan Alemanian eskarmentu handia daukate. Sistema osoa lortzeko eta honen gainean aholkuak emateko inongo arazorik ez baikenuen topatu.

Bestalde, ekogaia proiektuari berari dagokionez, Berlinean energia berriztagarrien inguruan lan egiten duten guk gertutik ezagututako esperientziak hauexek izan ziren: biodiesela eskaintzen duten gasolindegien sareko bi leku, UFOP biodiesela ekoizteko erabiltzen duten koltza lantzen duten laborarien elkarte eta UFA FABRIK, bizitzaren alde guztietan autosufizientzia lortzeko bidean den bizigunea.



Gure furgoneta bioeselez hornitzen

- **Biodiesela eskeintzen duten 2 gasolindegi, Sprint eta Fox**

Alemania osoan, gure datuen arabera, 1600dik gorako gasolindegiri topa daitezke biodieselaz hornitzeko gai direnak. Berlinen kasuan, adibidez, ez zen batere zaila hiritik kotxean osteratxo bat egin ondoren biodieselaren ikurra duen gasolindegirik topatzea. Guk haietariko bitan bisita egitea deliberratu genuen bai eta furgonetaren erregai-tanga osoa bete, guk geuk haien biodieselaren errendimendua probatu ahal izateko. Ikusi ahal izan genuenez guk ekoizitakoa baino lodiagoa zen haiek saltzen zutena.

Oso bitxia da nola Alemanian koltza oso erabilia dela bai biodiesela ekoizteko baita elikagai gisa. Harritzekoa da nola gaur egun ere gure herrian koltzari buruz hain irudi kaxkarra izaten jarraitzen dugun, olio osasuntsuenetarikoa dela frogatuta badago ere.

Aipagarriena zen guk bisitatu eta kanpotik ikusi genituen gasolindegiri orotan biodieselaren salneurria, diesel fosilarena baino 10 zentimo inguru merkeago izaten dela. Guk aurkitu genuen biodieselik merkeena 76 zentimotan zegoen, diesela 89tan zegoelarik.

Kontu honengatik, prezioagatik alegia, da hain erabilia biodiesela Alemanian, gerora UFOPeko gure kontaktuak azalduko zigun moduan.

Bestalde, oso nabarmena da enpresa handi edo multinazionalak eta enpresa txikien artean dagoen aldea. Autopistetan kokatuta daudenak, enpresa handien gasolindegietan (Shell, BP...) alegia, ez genuen ezta leku bat bera ere ez non biodiesela eskaintzen zuten. Hiri barneko gasolindegiri kate txikietan, aldiz, oso ohizkoa zen biodieselaren aukera. Adibide garbia dugu hauxe, arras asko erakusten duena nortzuk ez dieten energia berri, merke eta ekologikoei atea ireki nahi; beraien negozio itxia eta errentagarriari azken petrolio tanta xurgatu arte.

• **UFA FABRIK** www.ufafabrik.de

Artea, lana eta eguneroko bizitza uztartuko zuen bizimodu berri mota bat sortu nahian ehun bat pertsona 1979an mendebaldeko Berlinen erdian abandonaturiko filmen grabaziorako erabiltzen zen lur-eremua berreraikitzeari ekin zioten.

Laster eraikuntza kaltetuak zaharberritzen hiri barneko auzo-komunitate ekologiko bat bilakatu zen non adibidez zaborra bereizi eta birziklatzen lehenengoetarikoa izan ziren mendebaldeko Berlinen.

Idea hori jarraiki gaur egun aurkitu genituen etxebizitzak, jatetxea, kultur-gunea (kontzertuak, ikastaro ezberdinak,...) zirkua, granjak, haiek landutako produktuen denda ekologikoa, ume-zaindegia eta abarrak dituen ingurune orlegi baten barnean kokatutako eko-aztoa.

Hauexek dira han gertutik ikusitako esperientziarik aipagarrienak:

- *Lur-teilatuenak.* Zenbait etxeren gainean etxebizitzak epeltzeko sistema bat ezarri dute non teilak jarri beharrean lurra eta landareak erabiltzen dituzten. Lur eta landare hauen azpian harri geruza bat eta isolamendu lanak egiten dituen birziklatutako paperez betetako plaka moduko bat.

Sistema honekin kanpoko eguraldiaren eraginak murriztea lortzen dute etxeetako tenperatura egonkortuz.

- *Eguzki Plakak.* Ikusi ahal izan genuenez gunearen sarrerako teilatu gehienak eguzki-plakez hornitua zeuden eta hango lagunak komentatu zigunaren arabera mota ezberdineko plakak dira. Alde batetik bereizketa egin liteke plaken kristalaren arabera (polikristalinoak, monokristalinoak, amorfoak...) Momentuz probatzen ari dira errendimendua eta prezioen arabera haientzat egokiena litzatekeena aukeratu ahal izateko.

Bestetik norabide finkoa dutenak eta auto-orientagarriak direnak zeuzkaten. Azken hauen artean hiru sistemek bereiziki erakarri ziguten gure arreta. Lehenengoak ordenagailu batek kontrolatutako motore bat erabiltzen zuen auto-orientatzeko, ardatzaren bi norabideetan. Bigarrenak, aldiz, sistema hidrauliko moduko bat erabiltzen zuen non likido batek jasotako berotasunak eragindako presio aldaketak mugitzen zuen plaka eguzkiaren norabidean, ardatz bakarrean.

Eta hirugarrenak bi plaka txiki erabiltzen zituen eguzkiaren orientazioa zehazteko. Motorduna eragingarriagoa baino era berean garestiena.

- *Generadore eolikoak.* Komentatu zigutenez generadoreen auto-produzitzeko zatirik konplikatuenak diren palak eraikitzeo adina diru izan ez eta haiek beraiek eraikitzeari ekin zioten.

Honi esker orain dela ez asko haien patente propioa egitea lortu zuten. Momentuz proba-garaian daude baina oso pozik agertu ziren hasierako emaitzarekin. Antza, tamaina bereko generadore estandarren errendimendua-maila altuagoak lortu dituzte. Produktu ona lortuz gero merkatura ateratzea pentsatuta daukate. Guk behintzat inolako arazorik gabe funtzionatzen ikusi genituen.

- *Iragazitako uraren berrerabilpenerako sistema.* Euria jaso eta iragazteko beraiek asmatuiko zirkuitu baten bitartez gune osoko ur ez edagarriaren beharra asetzen dute. Sistema honetan landareek jokatzeko duten papera oso handia da, urak dauzkan osagai kimikoak erabiltzen dituzten haien hazkunderako eta era

Sprint gasolindegien prezioen taula



Ufa Fabrik-eko logoa



Werner, Ufa Fabrik guztia erakutsi zigun laguna



Ufa Fabriketako jendeak egindako generadore eoliko propio bat



UFOP elkarteak argitaratutako biodieselaren inguruko liburu baten azala



UFOPek argitaratutako koltzari buruzko eskuorri bat

horretan ura harri-geruzez eginiko iragazkietatik pasa ondoren erabilgarri bihurtzen da. Ur hau edangarria ez bada ere, beste erabilpenetarako(ureztatu,etxeko komunitan erabiltzeko...) aproposa da. Modu honetan uraz gain diru nahikoa ere aurreztu egiten dute.

Beraien 25. urteurrenara gonbidatuta zaudete, agi denez festa handia prestatuta daukate eta.

- **UFOP Union zur Förderung von Oel- und Proteinpflanzen**

www.ufop.de

Alemaniko nekazarien elkarte ezberdinek bultzatu eta mantendutako antolakundea. 4 arlo ezberdinetan lan egiten dute; barne eta nazioarteko instituzioei presio politikoa egitea, nekazal-ekoizpenaren hobekuntza sustatzea ikerkuntza eta berrikuntza-saiakerei babesa emanez, ustiaketa mota berriak garatzea eta olio autoktonoa eta landare proteindunen salmentak sustatzeko gizarteratze lana egitea.

UFOPeke gure harremana izan zen Norbertek erakunde honen gorabeherez gandi biodieselaren inguruko arlo guztietaz mintzo zitzaigun. Hala nola, Alemanian biodiesela ekoizteko erabiltzen duten koltzaren landaketa eta elaborazioaz, biodieselaren komertzializazioa arautzen dituzten legetaz, energia berriztagarrien inguruko gizartearen kontzientziatz...

Berarekin izandako solasaldi luzea oso interesgarria suertatu zitzaigulako elkarrizketa berezi bat egitea pentsatu genuen, guk berarekin izandakoaren laburpen gisa. Laister hemen paratuko dugu berak gure galderei entzundakoa.

Honetaz aparte aipatzekoa da, aurrikusita genituen bisitez aparte, UFOPeke jendeari esker Leer herrian kokatuta dauden koltza ekoizteko eremuen berri izan dugula. Beraz, biodieselaren ekoizpena eta banaketa hurbilagotik ezagutzeko xedez, Holandarako bidean gaudela hortik igarotzen saiatuko gara.

Biodieselaren kontuaz gain, Alemanian eta batez ere Berlin inguruan energia berriztagarrien erabilera orokorrari dagokionez eguzki-plaken erabilera ugaria eta generadore eolikoaren presentzia nabarmena azpimarratuko genituzke.

Berlinen eguzki plaken erabilera oso gauza arrunta da; eraikin publiko zein pribatuetako teilatuetatik hasita parkingetako sarrerak erosteko makineta arte.

Bitxia da oso nola oso hoztat dugun Alemania bezalako herri batek hain eguzki indarraren erabilera handia izan dezakeen. Gaur eguneko eguzki plaken potentzialitatearen adierazgarria.

Eguzkiaren erabilera oso ohikoa bada, eolikoa ere ez da oso urrun geratzen. Berlinerako bidean egin genituen ehunka kilometroetan autopista alboetan dozenaka generadore eolikoaren gune txikiak topatu baikenituen. Kasu gehienetan oso sakabanatutako eta ingurunean ondo txertatutako bospasei generadore txiki osatzen zuten gunea.

Azkenik ez genuke aipatu gabe utzi nahi erabiltzen duten zaborren bereizketa eta jasotzeko sistemak. Itzultzeko ontzien berrerabilpena (botilak, erosketarako poltsak...) sustatzen duten moduan, hiriko edozein izkinan, metroan, aireportuan edota kalean topa daitezke zaborra gaika biltzeko mota eta tamaina guztiko biltokiak.

Espero dezagun ez oso denbora luzean gure herrian halako sistemarik ikustea.



Parkineta makina solarrak



Metroko zaborra bereizteko ontzi bereziak



Info: info@ekogaia.net Webmaster: axier@ekogaia.net